

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

556. zkia.

XIII. urtea

2006ko urtarrilaren 20a



Mugerza Krosa domeka honetan

Afrikar hegalariaik Mintxetako pistan

el desván

LAGUNAK



90 zm-ko oherako nordikoak
29 € BAKARRIK

Zure nordikoa ez da izango amets bat!!



Neurri guztiak ditugu!

Neguko promozioa

Kalitate goreneko edredoi nordikoa eskeintzen dizugu!

Pisua: 250 gr. edo 100 gr. • Ehuna: %100 kotoia

%20ko beherapena ehunetan!



Uki leuna



Airearen zirkulazioa



Mikroklima bero erregulatua



40°-tan garbigarria



Garbiketa lehorrean



Hipoalergenikoa

ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



MIKEL KORNEJO

Pasa al dira benetan?

Bai, bukatu dira gabonak, orain biharamuna dator!

Urtarrila bukaeran gabonei buruzko milaka estadistika entzutea falta zaigu oraindik, baina urteko lehenengo egunetako informatiboen lehenengo berria tabakoa izan da: "zenbat tabernek..., zenbat pertsonak..., zeinen positiboa den guzti hau"...

Telebistan honen inguruko pare bat iragarki bereziki iguingarriak iruditu zaizkit, batez ere ematen duten erretzaileen irudi ezkor eta egozkorragatik. Bapatean erretzaileak persona krudel eta berekoiak dira, euren burua izorratzeaz gain besteen osasunaren aurka egiten dutenak.

Lehenengo batean neska bat zigarroa erretzen ari zen barran. Ondoan emakume edadetu bat jarri zen eta, ozpindu aurpegiz begiratu ondoren, "lotsagabea!" bota zion gazteari. Nik, ostera, berari deitu nion atentzia: erretzaileen tabernan zegoela eta bera bere gaztetan sartzeko. Besterik ez genuen behar...!

Kanpaina hau hain ondo ateratzen ari da, non "lege lehorra" ere iristear omen dagoela.

Eta hurrengo? Kontu izan, txerriki kontsumitzaileak eta lodiak...!

P. D.: Posible al da goizeko lauretan tabernan egindako promesa txiki bati uko egitea?

ZOZOAK BELEARI...



IBAN URIZAR

Beharpenak Mikele!!

Gabon osteko asteak eta usteak. Uzteak eta hasteak dakarren kondena. Tabakoaren kanpaina honek jendearen kontzientzia esnatu ezean erretzailearen marginazio osoa du helburu. Horrela ez bada ere dirudiena da. Azken finean, kearekin jostatzen dutenak dira gehien erretzen direnak.

Tabakoaren kanpaina alde batera utzita, experimentu polit bat luzatuko dizut. Paul Auster idazlearen istorio batek, kearen pisua nola jakin kontatzen du. Pisatu ezazu zigarro bat. Piztu zigarroa eta erre lasai, baina lasai. Kea hartu eta bota, zirkuluak marraztu edo dragoiarena egin, baina kontu handiarekin errauts guztia pisuaren gainean ezarri behar da. Behin zure azken zigarro hori bukatu duzula, soberan dagoena pisu gainean ezarri behar da. Orain pisatzen duena eta lehenengoaren arteko diferentzia da kearen pisua. Lerdokeri galanta izan liteke, baina tabakoaren inguruan bota den zeluloide eta tintarengatik bada ere, ez legoke gaizki mezu erradikal hoiek pixka bat baretzea. Zigarroa piztu eta infernura joan aurretik beste bide batzuk daudela esplikatuta behar zaie erretzaile gaixoei betirako kondena jaso gabe.

P.D.: Aurten indio eta bakeroek pakearen pipa erre ezean txupito bana hartu eta topa egin beharko dute alkohola debekatzeko ez duten bitartean. Txotx!!

«Bapatean
erretzaileak
krudel eta
berekoiak dira»

MIKEL

«Kanpainak
erretzailearen
marginazioa du
helburu»

IBAN



EZ DAGO ARAURIK; GIZAKI GUZTIAK DIRA EXISTITZEN EZ DEN
ERREGELA BATEN SALBUESPENAK

Fernando Pessoa



Borrokaz aske biziz... independentzia!

Atxilotua izan nahi ez baduzu ondo portatu, bortxatua izan nahi ez baduzu ez probokatu edo etxebizitza bat izan nahi baduzu lana egiteko bizi eta hipoteka ordaintzen eman zure bizitza...

Arazoa ez da zurea, nirea edo lagunarena. Hori sinistea da botereak bilatzen duen asimilaziorako pentsamendua.

Zailtasunak zailtasun, gazteok bizi dugun egoeraren jabe izatea hil ala bizikoa zaigu; atxilotetak, torturak, epaiketak, prekaritate egoera larriak, praktika kontratuak, gurasoen etxetik joan ezina, okupazioa gogor bortxaz hustua eta bien bitartean Euskal Herri osoan 234.283 etxe huts...

Gazte eta emakumeak are zapalduago, sexu eraso etengabeak, langabezi tasa altuak, ekimen askotan parte hartzea ukaturik...

Gure eskualdean ere gauzak ez dira oso desberdinak. Soraluze, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Deban gazteak prekaritatea pairatzen dugu, etxe hutsen kopurua igotzen ari da eta bitartean etxe berriak etengabe eraikitzen dituzte, bien bitartean ezin dugu gurasoen etxetik alde egin, langabezi tasak gora

egin du eta euskararen egoera ez da oso xamura, zerbitzu publiko askotan ez da erabili ere egiten...

Baina gure esku dago egoera hau aldatzea, pertsona eta gazte askeek osatuko dugun herri askea egitea posible da, gauzak aldatzea posible da.

Independentzia borrokan biziz, askatasun eremuak irabazi eta kendu dizkiguten eskubideak berreskuratuko ditugu.

Guk gure alternatiba badugu eta horretarako independentzia lortzea da gakoa, independentziarekin Euskal Herri librea eraikiko baitugu, eta horregatik inoiz baino ozenago aldarrikatu behar dugu independentzia!

ELGOIBARKO SEGI

Elgoibarko herriari:

Dakizuen bezala aurten ere, Elgoibarko Gazteen Gurutze Gorritik jostailu bilketaren kanpaina egin dugu. Beste urte batez ere lortu dugu ume guztiek, edo gehienek bederen, gabon hauetan jostailuak izan ditzaten. Guzti hau lortzeko ezinbestekoa da hainbat erakunderi eskerrak ematea.

Mila esker Pilar Ikastetxea, Elgoibarko Herri Eskola eta Elgoibar Ikastolari beraien laguntza eman zigutelako eta beraien eskoletan hainbat gune utzi zizkigutelako. Eskerrak baita ere Elgoibarko Udal Liburutegiari jostailuak jaso eta zaintzeagatik, mila esker baita ere egunkariei, kanpainari buruz eman duten informazioa benetan egokia izan baitzen. Mila esker baita ere Atxutxiamaika taldeari, benetan lan ederra egin baitzuen eta izugarritzakoa izan baitzen guretzat talde honen lana.

Baina guzti hauen gainetik eskertu beharreko talde bat dago: Elgoibarko herritarrak. Beraien jostailuak eta beraien denbora eman dutelako beste herrikide batzuk beste gabon "lasaixeagoak" pasa zitzaizten.

Mila esker guztioi eta datorren urtean ere, berriz gure beharrik ez egotea espero dugu.

ELGOIBARKO GAZTEEN GURUTZE GORRIA

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriando **MAKETATZAILA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorroategi, Sare Gumutzaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odiña, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokea K.E., Urutzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESABEA ZAHARRA** Gatzen Garateren liburirik **INPRIMATEGIA** Geru **TIRADA** 4.410 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

• **Asteburuetan Madalako errotondan aparkatzen duten autoei ez diete multarik jartzen:** “Morkaiko kalean dagoen aparkalekuan utzi nuen autoa zapatu baten, eta errotondan gaizki aparkatuta zeuden autoen ondorioz, ezin izan nuen goizaldeko 1:00ak arte nire autoa mugitu. Kanpotik etortzen direnek nahi duten tokian aparkatzen dute autoa asteburuetan eta astean zehar herritarroi multa mardoa jartzen dizkigute. Multak denei jarri edo inori ere ez”.

• **Santa Ana kalearen amaieran dagoen aparkalekuan jendeak gaizki aparkatzen du autoa:** “Jende askok ez ditu lurreko marrak errespetatzen, nahi duten moduan aparkatzen dute autoa eta toki gutxiago gelditzen da. Etxeak egin eta aparkalekuak kentzen dituzte. Autoa ondo aparkatzea ez da hainbesteko lana, eta denok irabazten dugu”.



• **Izotza egin zuen egunetan udaltzainek ez zuten San Lorenzo bidean gatza bota:** “Izotza egin zuen egun batean Udaltzaingora deitu nuen gure auzoan, San Lorentzoko bidean, gatza bota zezaten eta hori ez zela beraien lana erantzun zidaten. Beranduago bertara gerturatu nintzen, beraiekin gai honi buruz hitz egiteko eta orduan baietz esan zidaten, botako zutela. Udaltzaingoak telefonoz izan zuen jarrera ez zen batere ona izan, denok ordaintzen ditugu zergak eta denok merezi dugu atentzio apur bat”.



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12

komikia

Hil da gero... Hankatartea bero



Kokoe 043

Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

1950eko hamarkada: Euskal giroa pizteko ahaleginetan

Euskararen egoera kezkatzekoa zen Elgoibarren 50eko hamarkadan. Euskara etxe batzuetan baino ez zen entzuten, eta kalean gaztelania zen nagusi. Eskola munduari dagokionez ere, egoera benetan larria zen euskara eta euskaldunontzat. Eskoletan euskaraz egitea debekatuta zegoen, eta herriko neska-mutilek gaztelaniaz jarduten zuten. Elgoibarko haur gehientsuenak euskaldunak izan arren, eskolako eta lagunarteko harreman guztiak gaztelaniaz burutzen zituzten, eta laster lagatzen zuten euskara alde batera gaztelaniaz berbetan hasteko. Felix Etxeberriak esan digun moduan, "euskara hutsian hazitxako ume bat baiño gehixao hasi zan etxian gurasueri erderaz berba egitten".

Egoeraren larritasunaz konturatzeko, Bernabe Mujika zenak 1960an umeek euskaraz berba egiteko sortu zuen kuaderno batean jasotako hitzak ekarriko ditugu gogora: "Orain dala ogeita bost urte besterik ez, Elgoibar'ko Plaza Txikian jolasian ari ziran ia gaste gustiak euskeras itzegiten zuten. Zoaz oraiñ, eta lenago arkituko dituzu bertako aulki pian perretxikuak, ume bat euskaraz itzegiten baiño".

Egoera honi buelta eman eta Elgoibarren euskal giroa piztu eta indartzeko helburuarekin, 50-56 urteetan zerbait egin behar zela erabaki zuten herriko hainbat euskaltzalek. Ez zen batere lan erraza, baina zerbait egiteko gogoak bidean topatutako traba guztiak gainditu zituen. Hala, Elgoibarko euskaltzaleen lorpenetako bat euskal-ikastola izan zen. Felix Etxeberria, Jesus Larrañaga, Miren Vallejo, Lourdes Alberdi eta Begoña Andonegi elkartu eta 10-14 urte bitarteko gaztetxoekin hasi ziren lanean 1958-59an. Datorren astean kontatuko dizuegu zer egiten zuten euskal-ikastolan.



AGUSTIN RUBIO

GAU ESKOLAKO IKASLEA
1973AN

Agustin Rubio urtebeteko ordezkapen bat egitera etorri zen Pilar Ikastetxera, eta gaur arte gelditu zen hemen. Jaiotzez Leonekoa da bera. Hemen bizitzeko euskara beharrezkoa zela ikusi zuen eta Gau Eskolan eman zuen izena. Egun bertakotzat du bere burua.

• Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Duela 32 urte inguru. Leonetik etorri nintzen Elgoibarrera eta euskarak atentzioa deitzen zidanez, ikasten hastea erabaki nuen. Urte mordoia eman nituen gau eskolan, Parrokiako lokalean ematen genituen klaseak. Gogoz hasten nintzen baina Aste Santu ingururako utzi egiten nuen. Lanetik irten ostean euskara ikastea gogorra zen. Ondoren HABEn eta AEKn ere ibili izan naiz.

• Zein izan ziren irakasleak?

Nire lehenengo irakaslea Mari Isabel Arakistain izan zen. Ikasleen artean oso giro ona geneukan.

• Zaila al da euskara ikastea?

Bai, niri gogorra egin zitzaidan. Ez daukat hizkuntzak ikasteko erraztasunik.

• Zer egin zitzaizun zailena?

Euskararen estruktura. Beti erderaz pentsatzen nuen eta esaldiari buelta eman beharra zaila egiten zitzaidan, bai idazteko eta baita hitz egiterako orduan. Ergatiboaren "k" marka ondo jartzea ere zaila da.

• Erabiltzen al duzu euskara gaur egun?

Bai, saiatzen naiz familiakoekin eta zenbait lagunekin euskaraz egiten. Hainbeste urtez ikasten aritu ondoren mantendu egin behar da, eta ez ahazteko modurik hobereena erabiltzea da.

• Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?

Ondo, baikorra naiz. Gaur egun euskara ikasteko erraztasun handiak daude. Euskararen une zailenak pasatu dira dagoeneko.

I. URTEURRENA

2005eko urtarrilaren 22an, 75 urte zituela hil zen

Juanita Osoro Larrañagaren

oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 21, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



[AKORDATZEN NAIZ]



JAVIER ARRIOLA

1940an jaioa

«Dotriña eta eskolako zigorrak»

Eskolatik erten eta dotriñara juten giñan abadiana. Dotriña ikasten ez bazan, ez zagan komuniorik egitterikan. Bi komunio zauden, komunio haundixa eta txikixa. Komunio txikixa 7 urtekin edo egitten zan, eta 11kin edo 12kin edo, segun dotriña zela zakizun, komunio haundixa. Atzeratu ezker, beste bronka bat etxian. "Danak 10 edo 11 urtekin komuniua egitten, eta hik zer? Aittitta egiñ eta gero jun bihar dek?".

Zigorra jaso ezker, akabo! Han ez zagan motiborik preguntzerik. Batian regliakin, bestietan sumitzan egurrakin: taka! Eta gero ez jun etxera esanez "maixuak jo egin diit", eh? Bestela, beste bat zagan eta.

Guk eduki gendun maixu bat Mendaron, Don Cesareo Moreno; txikixa zan, baiña oso maixu ona (santanderinua zala uste det). Baiña, klaro, igual 70 lagun eskolan. 7tik 14 urtera artekuak, danak gela batian. Danak zaintzeko ere, nik ez det esaten jo biharko zanik, baiña maisu oso gogorra zan; ondo preparutako jende asko atera zan bere eskuetatik. Panorama haura ikusitta, zeozer egin bihar zaban. Harek beti esaten zaban

"entran unos y salen otros, y siempre domando potros". Maixua sartzen zan goizian 9:00etan, eta urtengo zaban eskolatikan arratsaldeko 19:00etan, eta gero gabeko eskolia berriz beste batzueri. Gaur gitxiorekin ere erreko dira maixuak igual, ezta? Nik ez det esaten jotzia ondo egongo zanik, baiña...

"Cara al sol" kantau eta horrek ikasi genduzen behintzat.



[GURE BERBAK]

Egittura aipagarri batzuk (2)

Lehengo astekuari jarraituaz, **neurrixen** gaiñian ohartxo bat egin nahi dot. Euskaltzaindiak esaten dau tradizioko egitturak lehengo astian aittatzen genduzenak dirala:

- *arbola hau 4 metro luze da*
- *arbola hau 4 metro da luzian*

eta horixe erakusten dau aztertu dittugun elgoibartarren jardunak. Askoz berrixaguak eta tradizio txikixagokuak dira era honetakuak:

- *Arbola horrek 4 metro neuritzen diitu (?)*

Beste kontzeptu baten gaiñian ere jardungo dogu gaur: **kantidadiak**. Kantidadia ezin dogunian zehatzegi eman, egittura hau da zabalduena: *bi edo hiru, lau edo bost...* EDO erabillitta, hain zuzen. Ba, horrekin batera, edadeko jendiari barra-barra entzuten diogu EDO hori gabeko egitturia:

- *Santa Eske egunian ertetzen ziran tallarran zortzi-hamar lagun.*
- *Gerran, han bi-hiru urtian haura, ta gu hemen.*
- *Egunero egoten zittuan han gaztiak, neska eta mutill, igual hamalau-hamabost urtekuak, eta harekin pelotan egiñ, eta hantxe.*

Euskera batuarekin edo ikasi doguzen bizpahiru, hiruzpalau eta holako egitturak, berriz, arrotzak dira adiñeko elgoibartar alfabetatugabientzat.

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

2006ko urtarrilaren 14an hil zen

Roman Arriola Alberdiren

emaztea, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



TABAKOAREN KONTRAKO LEGEA

KEAREN KONTRAKO GUDA

Gogor hasi da urtea erretzaileentzako. Aspalditik zetorren tabakoaren kontrako legearen kontua eta azkenean iritsi da martxan jartzeko eguna. 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera lantoki eta hainbat toki publikotan erretzea debekatu egin dute eta legea betearazteko jarri dituzten isunak ere gogorrak dira. Hemen ere tabakoaren aurkako ditoxozoko legea! aterako zitzaizuen askori. Lasai hartu. Zigarrotxo bat erretzeko behar dena baino denbora gehiago irauko du eta erretzaile eta ez erretzaileen arteko eztabaidak. Gai honek ez du inor hotz lagatzen, guztiok dugu zeresana: Ezin izango al dut nire ohiko tabernan erre? Behingoz kez inguratu gabeko pintxo batez gozatu ahal izango dut? zer erabaki hartuko dute jatetxe eta taberna jabeek? Hauek eta beste hainbat galdera zeuden airean. Akaso une egokia izan daiteke erretzeari lagatzeko. Gaurkoan lege honek Elgoibarren izan duen eragina jasotzen saiatu gara.

ELGOIBAR HERRI ERRETZAILEA

Elgoibar herri erretzailea da. Horrela ondoriozta dezakegu herriko taberna eta jatetxeetara dei egin ostean jaso dugun erantzun errepikatuena "bai, gure taberna/jatetxean erretzaileek erre dezakete" izan baita. 100 m²tik beherako taberna/jatetxeen artean salbuespen bakarra Quintin taberna izan da. Hauek ezin daitekeela erre erabaki dute. Txiri Bogan ere ezin da erre, Merkatu Plazan

baitago eta bertan ezin da erre. 100m²tik gorako jatetxeek bi gune bereiztu behar izan dituzte eta Gabi jatetxeak legez behartuta ez egon arren, gauza bera egin du.

ERRETZEARI LAGATZEKO MOMENTUA

Erretzaile askok ez dute ondo hartu tabakoaren kontrako legea, baina beste askok lege honekin batera erretzeari lagatzeko momentua iritsi dela erabaki

dute. Horretarako bakoitzak bere metodologia dauka, baina asko dira laguntza eske botikara gerturatu direnak. Oraindik hilabete ere ez da pasatu legea martxan jarri zenetik eta erretzen lagatzeko metodoen salmentak izugarri egin dute gora. Nikotina partxeak dira jendeak gehien eskatzen dituenak, %158an igo da hauen salmenta kopurua. Hala ere, garrantzitsuena erretzeari lagatzeko borondatea da.

Ikuspuntu desberdinak



FELIPE CASTRILLEJO

Castrillejo estankokoa

"Autoak, jatekoa, edaria... osasunarentzat kaltegarriak dira eta horren kontra ez dute ezer egin. Tabakoaren kontrako legea oso gogorra izan da.

Estantokan momentuz ezin dut esan legeak eragin handia izan duen ala ez. Urtarrilean urtero jaisten dira salmentak, jendeak urte berrirako egiten dituen promesen artean erretzeari uztea izaten da garrantzitsuena. Estantokoen etorkizuna oso beltz ikusten dut. Gure estankokan ezin da erre eta 18 urtetik beherakoak legez ezin dira sartu. Hala ere, hemen sartzen dira, kiniela botatzera edo gurasoei laguntzera. Hori bai, ez diegu tabakorik saltzen. Kontraesan ez betetiko legea da. Batetik erretzea debekatu dute eta bestetik tabako marka berriak atera dituzte prezio merkeagoan".



ELENA YUDEGO

Yudego farmaziakoa

"Erretzeari lagatzeko produktu gehiago saltzen ditugu orain. Halere, jendea lehendik ere tabakoa osasunarentzat kaltegarria dela kontzientzia hartzen

hasia zen. Debeku eta legeen gaineratik, osasunak arduratzen du jendea. Tabakoa lagatzen laguntzen duten produktu eraginkorrena partxeak dira. Azalez sartzen da nikotina organismora eta nikotina beharrez asetzen du. Batez beste pare bat hilabetetan galtzen dute erretzeko ohitura. Baina partxeek gain borondate eta motibazio sendoa behar dira. Txikleak, pastila batzuk eta gezurretako (plazebo efektua) zigarro batzuk ere baditugu. Guri dagokigunez, ni ez erretzaile sutsua naiz eta farmazian, osasun establezimendu bat izaki, betidanik egon da galarazita erretzea. Inor ez zaigu sekula kexatu".

Tabakoaren kontrako legea

Erabat debekatuta dago ondorengo tokietan erretzea:

- Lantoki publiko zein pribatuetan, aire librekoetan izan ezik
- Administrazio publikoko gunee guztietan
- Osasun establezimendu guztietan
- Ikastetxe guztietan
- Kirol eta kultur gunee guztietan, aire librekoetan izan ezik
- Bezeroaren arretarako guneeetan
- Merkatal Zentroetan. Bertako tabernetan bi gunee bereiztuz bakarrik erre daiteke.
- 18 urtetik beherakoentzako guneeetan, aire librekoetan izan ezik
- Jatekoa eskaintzen den establezimendu guztietan
- Iggogailuan
- Garraio publiko eta taxian
- Gasolindegietan



Erretzea debekatzen da baina erretzaileentzako gunee jarri daiteke:

- Hotel eta ostatuetan
- 100m² baino gehiago daukaten taberna, jatetxe edo antzerako guneeetan.
- Aireportu, autobus edo tren geltokietan
- Gunee hauek ondo adierazita eta ondo aireztatuta egon behar dute.

Isunak:

- Hiru motatako isunak egongo dira egindako delituaren arabera: arinak (30-600 eurora arteko isunak), larriak (601-10.000 eurora artekoak) eta oso larriak (10.001-600.000 eurora artekoak).



CARLOS LAHOZ

Gabi jatetxekoa

“Legez ez gaude erretzaileentzako gunee bat bereiztera behartuta. Jantokia eta taberna banatuta edukitzeak erraztu zigun erabakia. Hortaz, jantokian

ezin da erre eta bai tabernan. Legea bera hanka sartze bat iruditzen zait. Beste mila gauza daude kaltegarriagoak: kutsadura, behi edo oilasko eroak... Autoei abiadura mugatzea garrantzitsuago derizot, jende gehiago hilko baita hauen eraginez. Tabakoak dituen substantzia kaltegarri eta adikiboak kontrolatu beharko lituzkete eta ez bakoitzak erretzeko daukan askatasuna murriztu. Halere, guri mesede egiten digu, jantokian hobeto egoten da kerik gabe eta gainera, errentagarriagoa zaigu, jendea azkarrago altxatzen baita mahaitik. Dena den, erretzea guztiz galaraziko duten eguna iritsiko dela uste dut”.



BEÑAT BILBAO

Etxepe enpresakoa

“Legez, lantokietan ezin da erre, eta legea bete dugu. Aukera bakarra langileei kanpora ateratzen uztea da, baina ez uzteko gomendatu digute, izan

ere, zigarroa erretzera kanpora ateratzen uzteak arazoak sortu ditzake, langileen arteko bereizketak eta urte amaieran gainera, denbora asko galtzen da. Momentuz ez dut langileekin arazorik izan, protesta batzuk izan ditut, besteak beste, tailerrean lan egiten dutenen partetik. Langile batzuk ez dute ulertzen beste ke batzuk dauden tokian zergatik ezin den erre. Bulegoetan ez dugu arazorik izan. Lehen tailerrean erre egiten zen, eta bulegoetan langileen arteko adostasunak lortuz ere, batzuk erretzen zuten. Niri pertsonalki alboan jendea erretzen egoteak traba egiten dit, baina zuritik beltzerako erabakia izan dela iruditzen zait”.

[PROTAGONISTA]



Ainara Burgaña

Ainara Burgaña elgoibartarrak irabazi du Elgoibarko Gazteria Sailak antolatutako logotipo lehiaketa. Aurkeztutako lanen artean Ainara Burgaña eginiko "Rai" irudia izan da onena. Guztira 11 lan aurkeztu dira lehiaketara, eta Udaleko Gazteria Saitetik esan digutenez, bost lan oso onak izan dira. Ainara Burgaña, 29 urteko neska elgoibartarra, diseinatzaile grafikoa da. Lehiaketa batera aurkeztu den lehenengo aldia izan da, eta ezustean hartu du garaipena: "Honek beste lehiaketa batzutara aurkezteko animoa eman dii, oso pozik nago".

[NOTIZIA]

Sigmako aparkeluko obraren lehenengo fasea bukatu dute

Sigmako aparkeluko obrak aurrera doaz eta dagoeneko lehenengo fasea bukatu dute. Aparkelua eta ostegunetako merkadilloaren kokaleku berria izango den gunea estali dute dagoeneko. 1.200m²ko gunea da eta alturan 4,5 metro ditu. Beheko solairu hau ibilgailu arinentzako aparkelua izango da, ostegun goizetan izan ezik. Gune honi jarri dioten estalkiaren gainean eraikiko dute bigarren solairuko aparkelua. Guztira 96 autorentzako aparkelua egingo dute bi solairutan banatuta.

Proiektu kritikatu

Udalak 700.000 euro erabiliko ditu gune hau prestatzeko. Proiektu honek kritika ugari jaso ditu Einbiou Herri



Plataformatik, baina Udalak obra egiteko beharrezko baimen guztiak dituela ziurtatu du.

Lehenengo fase hau amaitu ondoren ingurunea hornitzeko lanak hasiko dira, barandilak, farolak eta beharrezko elementu guztiak jarriko dituzte.

[ZENBAKIA]

778

Elgoibarko odol emaileen elkarteak 778 odol ontzi entregatu zituen 2005ean Donostiako odol bankura. Herriko odol emaileen elkarteak gustura daude lortutako emaitzarekin eta bide honetatik jarraitu nahi dute aurrerantzean ere. Herriko gazteen partaidetza eskatzen dute.

asteko [ARGAZKIA]



Urik onena galtzen ez dena! Horixe aldarrikatu du aste honetan zehar Nafarroa Plazara etorri den autobusak. Ura izan da erakusketa honetako protagonista. Herritarrei ura ez dela alferrik galdu behar erakustea izan da erakusketa honen helburua. Ura balio preziatua da eta horegatik beharrezkoa dena bakarrik erabili behar dela adierazten zuten. Gure bizitzan ura beharrezkoa da, edateko eta garbitzeko, batez ere, baina denon ahaleginarekin ur asko aurreztu daiteke.

Herriko ekintza plana landu zuen Agenda 21eko partaidetza foroak



Elgoibarko Agenda 21 herri-partaidetza foroa joan zen urtarrilaren 12an bildu zen berriro eta oraingo honetan iraunkortasunari buruzko ekintza plana landu zuten. Elgoibarren egiten den zazpigarren bilera izan zen. Helburua ekintza plana osatzen duten ekintzen lehentasuna adieraztea izan zen, hau da, hurrengo urteetan aurrera eramango diren ekintza garrantzitsuenak zehaztea; beti ere, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren garapenerako ondorioak kontuan izanda. Lehentasunik ez duten ekintzak hurrengo urteetan burutuko dira.

Zer da Agenda 21?

Etorkizuneko belaunaldien ahalmena arriskuan jarri gabe, gaur egungo belaunaldien beharrak asetzeari helburutzat duen prozesu etengabea da Agenda 21, hau da, herritar guztion bizikaltatea hobetzea bultzatuko duen proiektua. Elgoibarrek 2002an eman zuten lehenengo urratsa Agenda 21 proiektuan. 2004. urte amaierarako bukatu zuten Udalak herriaren diagnostia eta herritarren partaidetza bultzatzeko 2005eko urtarrilaren 31n bildu zen estrainekoz herri-partaidetza foroa. Jendearen partehartzea ezinbestekoa da.

[MOTZ-MOTZIAN]

Bide Eginez proiektua

2005eko urrian Batasunak Bide Eginez izeneko eztabaida prozesua jarri zuen martxan. Abendura bitartean Euskal Herrian 7.000 lagun baino gehiagok parte hartu dute 246 herritako batzarretan. Elgoibarren 3 batzar burutu dira eta bertan 47 lagunek hartu dute parte. Elgoibarko Batasunak prozesuaz egiten duen balorazioa oso positiboa da izandako partehartzeagatik, eztabaidengatik eta proiektuaren inguruan jende berria atxikitzeko balio izan duelako. Prozesu honi amaiera emateko, Bilboko BEC aretoan Euskal Herria Ezkeretik Eraikiz proposamena eta Mahai Nazional berria aurkezteko asmoa zuten bihar, baina Audientzia Nazionalak Batasunaren ekitaldi guztiak galarazi ditu datozen bi urteetarako.

AEKn matrikula zabalik

AEK euskaltegiak matrikula epea ireki du berriro. Euskalduntze maila guztiak, administrazioan zein irakaskuntzan lan egiteko behar diren perfilak eta EGA ere eskainiko dira. Informazio gehiago jasotzeko edo matrikula egiteko, euskaltegira bertara joan edo 943 741332 telefonora deitu daiteke.

Gida komertziala

Espainiako Gobernuak argitara emandako dekretu batek telefono partikularren zerrendak kaleratzea eragotzi du. Ondorioz, BARRENEK 2006an kaleratuko duen gida komertzialean ez da telefono partikularrik agertuko.

Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko hiru txeke zozketatu dituzte Merkatu Plazako dendariak eta Nagore Ibarluzea, Martin Dominguez eta Paqui izan dira irabazleak. Dirua erosketa txeketan jasoko dute eta Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.

Soraluzeko gazte bat atxilotu zuten asteazkenean Lerun Txiki baserrian



Ertzantzak Soraluzeko Sabin Mendizabal atxilotu zuen asteazkenean, PPko egoitza bati eraso egitea leporatuta. Ertzantzak adierazi zuenez, 2003ko maiatzean Emuko PPren egoitza jarri zuten lehergailuarekin zerikusia du 27 urteko gazteak. Atxilotuta Lerun Txiki baserrian egin zen, bertan bizi baitzen. Ekaina aldera okupatu zuten baserria, eta behera bota artean bertan bizitzeko baimena zeukaten. Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak agertu duenez Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku utziko dute gaztea.

Inkesta

BBKk 50 urterako hipoteka mailegua eskaintzen du.

Hipotekatuko al zenuke zure bizitza 50 urterako?

M^a CARMEN PEREZ

Etxekoandrea

46 urte



“Ezta pentsatu ere! Hori ordaindu aurretik beste mundura joango gara, eta seme-alabek ordaindu beharko dute. Ordaindu ahal dudana hipoteka bat hartuko nuke.”

ASENJO BASALO

Autonomoa

36 urte



“Ez, ikaragarria da. 30 urtekin hartzen baduzu hipoteka 80rekin oraindik ordaintzen ari zara. Etxea erosteko aukera bakarra balitz duda handiak izango nituzke.”

JOSE LUIS PEREZ

Errektifikatzailea

52 urte



“Ez, hori lapurreta bat da. 50 urtetan eskatutakoaren bikotza itzuli behar zaio banke-txeari. Hori beraiek diru gehiago irabazteko beste trikimailu bat da.”

MONSE BAO

Garbitzailea

36 urte



“Ez, nire bizitza hipotekatzeaz gain, nire semeena ere hipotekatuko nukeelako. Oso egoera larrian egongo banintz ere, beste aukeraren bat bilatuko nuke aurretik.”

[BAI ala EZ?]

Ba al daukazu beherapenetan erosteko ohiturarik?

BAI %70

“Bai, noski, ni ez naiz inozoa. Halere, denda askok merkealditarako produktu eskasagoak ateratzen dituztela uste dut eta niri gustatzen zitzaidan hura sarritan ez dut topatzen.”

EZ %30

“Ez, behar dudana behar dudan momentuan erosten dut. Beherapenak badiira, hobeto, baina ez naiz erostera joaten beherapenak direlako, zerbait behar dudalako baizik.”


Datorren asterako... Hiru puntuen premia larrian jokatuko da domekako derbia. Ikusten al duzu Real edo Athletic-a bigarren mailara jaisteko arriskurik?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) **ERANTZUNA**

7744 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala** hotelean. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

BH Institutuko 3 ikasle saritu dituzte Mendaroko gabonetako idaz lehiaketan



Aurtengoan ere Mendaroko Udalak Gabonetako idaz lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan Debabarrena eskualdeko ikastetxe desberdinek hartzen dute parte. Aurreko urteetan bezala, Elgoibarko BH Institutuko ikasleek 14 eta 18 urteen arteko mailan hartu dute parte eta bertako hiru ikasle saritu dituzte: Mendaroko Maialen Olazabal eta Soralezeko Josune Egaña eta Maite Kintanilla.

Neskak nagusi

Oraingo honetan ere neskak nagusitu dira Mendaroko idaz lehiaketan, badirudi, idazteko abilezia handiagoa dutela.

Maialen Olazabal mendaroarrantzat sari berri bat izan da hau idazketa alorrean. Azkenaldian idaz lehiaketa eta bertsolaritza arloetan sari desberdinak jaso ditu Maialenek. Mendaroko neska honek idazteko doai berezia daukala erakutsi du.

[IKAS KONTUAK]

Ingeniaritza Eskolako diploma banaketa

Datorren urtarrilaren 26an, ostegunean, arratsaldeko 19.00etan, IMHko Areto Nagusian, Ingeniaritza Eskolako 7. promozioiko ikasleen diploma banaketa ekitaldia izango da. Guraso, enpresa tutore, irakasle eta ikasleak gonbidatuta daude ekitaldira. Bestalde, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Aldun Nagusiak hartuko du parte ekitaldian. Aipatu bestalde, 2006-2007 ikasturterako izena emateko epea zabalik dagoela. Informazio gehiago 943 74 41 32 telefonoan.

Ikastolako jaialdia

Ostiralean, urtarrilak 27, ospatuko da Ikastolako LHko ikasleen jaialdia. Urtero bezala, gela bakoitzak ikuskizun desberdin bat prestatuko du eta jaialdi egunean ikusleen aurrean erakutsiko dituzte beren arterako doaiak. Arratsaldeko 19:00etan Ikastolako frontoian..

[IRTEERAK]



Pilar ikastetxeokoak Pagoetan

Pilar ikastetxeoko LH6. mailako ikasleak Pagoetan izan ziren, bertako ekosistemako hainbat gauza ikusten eta ikasten. Sagastizabal baserrian landareei buruzko gauza mordoa ikasi zuten.



Herri Eskolakoak Izazpin

Herri Eskolako Guraso Taldeak antolatuta, Izazpin mendira egin zuten irteera. Herri Eskolako ikasle eta gurasoek. Pagotxetako lepotik egin zuten igoera. Aldapa gogorra izan zuten arren, oso gustura ibili zirela kontatu digute.



Ikastolakoak Orion

Ikastolako DBH 2. mailako ikasleak 3 egunetan Orioko Txurruka aterpetxean egon ziren. Euskararekin erlazionaturiko hainbat ekintza burutu zituzten: Euskal kantuak, Euskal txat-a... Bestalde, Goenkaleren grabaketa ikusteko aukera izan zuten.



ELIUD FERNANDES SOUZA BRASIL [HEGO AMERIKA]

«Brasilera itzultzean nire herriko alkate gustatuko litzaidake»

BRASILGO IPAR-EKIALDEAN, ATLANTIAR KOSTALDEAN, DAGOEN MARANHÃO ESTATUKOA DA ELIUD FERNANDES SOUZA (29 URTE), VITORIA DO MEARIM (34.000 BIZTANLE) HERRIKOA, HAIN ZUZEN ERE. MEARIM IBIAK BUSTITZEN DUEN HISTORIA HANDIKO HERRI HAU KULTURAKO ONDARE IZENDATUA IZAN DA, BI URTE DARAMATZA ELIODEK GURE ARTEAN. ZUETARIKO ASKORI BALITEKE BERE AURPEGIA EZAGUN EGITEA, DOMIKO HARATEGIAN LANEAN ARI BAITA.



♣ Brasildar bat Elgoibarren. Kontaiguzu?

Sao Luis do Maranhão (estatuko hiriburua) sukaldaritza ikasi eta 8 urte egin nituen Brasilgo armadan, soldadu-sukaldari gisa. Sukaldaritza eskolaren bitartez ezagutu nuen Debako "Ur-gain" jatetxeko jabea. Brasildar batekin ezkondua egoteaz gain, sukaldaritza eskolatik pasatako herrikide asko ekarri ditu honantz lanera. Horrela iritsi nintzen udan lana amaitu eta lan bila hasi behar izan nuen. Elgoibarko Domiko harategian aurkitu nuen.

♣ Lanagatik ez balitz Brasilen jarraituko al zenuke?

Bai. Brasilen lana egon badago, lan asko eta irabazi gutxi, ordea. Gaizki administratutako herrialdea da. Ustelkeria da nagusi politikarien artean. Lula presidente aukeratu izanaz zeharo damututa gaude brasildar gehienok. Zerueta lurra agindu zituen: 2006. urte amaierarako brasildar guztiek zer bazkaldu eta afaldu izango zuela, esaterako. Zoritxarrez, goseak amoratzen daude herrikide asko. Herrialde ikaragarria da Brasil, baina jende asko txirotasunik gorrienean bizi da. Nire estatura muturreko pobrezia hau ez da oraindik iritsi, ezta berarekin dakarren indarkeria guztia ere.

«Brasilen doaneko sukaldaritza ikastaroak ematea nahiko nuke»

♣ Bizimodua oso bestelakoa al da hemen?

Jaien herrialdea da nirea, astero dago jairen bat. Lan egiteko ordutegiak ere ez dira berdinak. 1835. urtean sortu zen Vitoria do Mearim, eta 1913. urtean Isabel erreginak askatu zituen arte, esklabu asko bizi izan ziren bertan. Hauek, egungo jaien eta ohituren sorburua diren kultura aberatsa laga zuten.



👤 **Gaingan ditugu inauterik. Inbidiarik bai?**

Rio de Janeirokoak ezagunenak izan arren, Brasil osoan ospatzen ditugu topera. Berehala hasiko dira samba eskolak entseguekin. Ostegunetik igandera arte kalean arituko dira. Inauterik hizkuntza, kolore eta zapora guzientzako direla dio brasilgo esatera ezagun batek.

👤 **Erraz ligatzen al du brasildar batek Euskal Herrian?**

Hemengo emakumeak serioagoak dira. Bi neska gipuzkoarrekin bakarrik atera naiz, baina oso zaila da ligatzea, batez ere, sexu erlazioak izatea. Emakume brasildarrentzat errezagoa da hona etorri eta bertako mutilagun bat topatzea, alderantziz baino. Euskaldunok oso serioak zarete. Brasildarroi asko berba egitea gustatzen zaigu eta berba eginez lagunak egitea. Tratuan atseginagoak garela uste dut. Gainera, ez dakit gure azala ilunagoa delako den, baina beste begi batzuekin begiratzen nautela igartzen dut, batzuetan.

👤 **Zer zaletasun dituzu?**

Politika gustatu izan zait beti. Mundua ezagutu eta lan egin ostean, nire herrira itzuli eta bertako alkate edo zinegotzia izatea gustatuko litzaidake. Behar larria duten haurrei laguntzea nahi nuke, asko dira-eta. Ez dute ahora zer eman, arroparik ere ez eta asko ez dira eskolara joaten. Egoera tristea da. Ia Zemario, nire lehengusuak, egoera zuzentzeko zortea duen, iaz aukeratu baitzuten alkate.

👤 **Familiatik datorkizu politikarena?**

Alkate txar eta mendekati bat izan dugu herrian 8 urtean. Ama ere udalean zuen lanpostutik bota zuen boturik eman ez

geniola jakitean. Pobre heldu eta udalaren bizkar aberastuta alde egin zuen, eskuak garbi. Eztula eta dirua ezin dira ezkutatu ordea: gasolindegia bat, adreiluak egiteko fabrika bat, hondartza luxuzko etxea eta 3.000 abelburuko etxaldea erosi zituen-eta. Hauteskundeak galtzea ez zuen lege onez onartu eta froga guztiak erre zituen mendekuz. Udal ondare guztia xahutu eta larrialdi egoeran laga zuen herria.

👤 **Sukaldaria zara. Zer iruditzen zaizu euskal gastronomiara?**

Brasilen doaneko sukaldaritzak ikastaroak ematea gustatuko litzaidake hemen ikasitakoekin: legatza saltsan, rabak, kroketak, bakailaua, e.a. Han arrain oso onak ditugu, baina ez ditugu ondo prestatzen, ez diegu zuku guztia ateratzen. Hemen dena aprobetxa daitekeela ikasi duk; arrain burua, azala, kokotxak, e.a.



BRASIL

- **Hiriburua:** Brasilia
- **Azalera:** 8.472.403 km²
- **Biztanleria:** 174.261.717
- **BPG:** 6.400 dolar biztanleko.
- **Dentsitatea:** 19,94 bizt./km²
- **Talde etnikoak:** %53 europar jatorrikoa, %38 mestizoa, %6 afrikarra, %1 japoniarra.



GAZTIA NAIZ

elkarrizketa...

Unai Fernandez

UNAI FERNANDEZEN FAMILIAK 5 URTEZ JARRAIAN HARTU DU HAUR SAHARUIAR BAT ETXEAN. JOAN ZEN ABENDUAN, ANAIAREKIN BATERA, ALDERANTZIZKO BIDEA EGITEA ERABAKI ZUEN UNAIK. ARGELIAKO DESERTUAN BIZI DIREN ERREFUXIATU SAHARUIARREN ERREALitatea EZAGUTZEKO ASMOZ, MOHAMMED 'ANAIÁ' SAHARUIARRA NOLA BIZI DEN EZAGUTZERA JOAN ZEN. GIZALEGEA ETA ABEGIKORTASUNA DIRELA DESERTUKO LUR ANTZUAREN EKARPEN NAGUSIENETAKOAK IKASI ZUEN 16 URTEKO GAZTE ELGOIBARTARRAK. ESPERIENTZIA NOIZ ERREPIKATU IRRIKITAN DAGOELA AITORTU DIGU.



“Tripako mina modukoa nabaritu nuen saharuiar herrixka bat ikustean”

Saharuiarrak nola bizi diren jakiteko gogoaz zenuen, ezta?

Bai. Badakit nola bizi naizen hemen, baina nola bizi dira saharuiarrak han? posible zen ikusitakoa polita ez izatea, baina neure kabuz ikusi nahi nuen, zuzenean.

Nondik nora ibili zara han?

Ia 200.000 saharuiar Argeliako Tindouf hiriarren inguruan bizi dira, desertuaren erdian, jaioteritik (Mendebaldeko Sahara) urrun, marokoarren okupazioa noiz amaituko zain, ahal duten moduan bizirauten. Gu Tindouf hirian eta inguruko herrietan: Ausset, Megek... ibili ginen astebetetz. Mohammeden familiak hartu gintuen bere etxean. Beti izan genituen alboan, uneoro gutaz arduratzen.

Etxeko atekak zabaltu zizkizueten...

Bai. Dena ematen dizute, mikatzteraino, nahi dutena ezin badute lortu. Lurra eta zera mugitu eta daukaten diru guztia zurekin gastatzeko gai dira. Era guztietako okelak jan genituen han: gameluarena, ahuntzarena..., jakin banekien arren, ez dela euren eguneroko elikadura. Gu okela erosteko eskaini arren, inola ere ez ziguten onartzen. Ez ninduen eroso sentiarazten, baina han horrela da, inkontzienteki egiten dutela dirudi.

BARREN

Mohammedek nolako bizimodua darama?

Guraso eta 3 anai-arrebekin bizi da. Ahizpa txikiak Kontxi izena du. Haurdun zegoenean nire aitaren edo amaren izena jarriko ziola umeari esan zien Mohammeden amak nire gurasoei eta alabatxoia izan zuten. Koskortzen denean bera izango da gurera etortzen hurrena.

Zein izan zen herrira iritsi eta jaso zenuen lehen impresioa?

Gauetz iritsi nintzen, kamioi batean bi orduko bidaia gogorra egin ostean. Iritsi berritan ongi-etorri jaia eskaini ziguten Hurrengo goizean jaiki eta muino batera igo nintzen non nengoen ikusteko. Tripako mina modukoa nabaritu nuen nola bizi diren ikustean. Haimek, adobezko etxeek eta areazko kaleek osatzen dute herrixka. Daukaguna apreziazteko balio izan dit, dena eta soberan daukagu-eta. Harrigarria badirudi ere oso zoriontsu bizi direla ziurta dezaket. Bi gurgpili lotutako burdin zati batekin jolasean aritzen dira umeak.

“Mohammed anai txiki bat, anai saharaviar bat modukoa da niretzat”

Gogoan al duzu Mohammed zenera etorri zen estraineko aldia?

5 urte izango zituen eta 12 nik. Mutil oso bihurria zen, eta oraindik ere halaxe da. Behin bakarrik kale egin du eta beste haur bat etorri zen bere ordeaz uda pasatzera. Irakasgai denak gainditu ezean ez d i e t e kanpora

ateratzen lagatzen, baliteke horrelako zerbaitegatik izatea. Argi daukadana, Mohammed anai bat gehiago dela niretzat: beste arraza bateko anai bat; eta haren gurasoak nire bigarren gurasoak

Zer zaletasun ditu Mohammed-ek gure artean dagoenean?

Hondartza. Desertuan bizi den haur batentzat itsasoa ikustea izugarritzko impresioa da, "shock" egoeran laga zuen. "Ostra, hemen ere area dago!" esan zuen. Ezin genuen uretatik atera, nire surfeko ohola hartuta egun osoa hantxe, nola gozatzen duen olatuekin!

Gauza asko irudituko zitzaizkion harrigarriak...

Arraskako iturritik ura barra-barra ateratzen ikusteak txundituta laga zuen. Dutzatzerakoan, berriz, uraren gehiegizko presioak ikaratu zuen. Begira-begira geratzen zen, ura nondik ateratzen den asmatu nahian. Euri zaparrada bat egin zuenean ere parkearen erdian geratu zen. Potzuetan bere burua botaz hasi zenean, katarroa hartuko zuela-eta atentzioa deitu zioten. Mela-mela iritsi zen etxera, iripartsu baina. Altueretara ere ez dago ohituta eta pisu altu bateko balkoira ateratzeko ikaratu egiten da. Han solairu batekoak dira etxeak. Ordenagailua, Play Station-a eta nire jostailuekin ere soltura ederra d u .

Behin esnatu eta Play Stationean jokatzeko harrapatu nuen. Ez dakit nola moldatu zen, inork ez baitzion irakatsi. Gaztelaraz primeran egiten du, nahiz eta biraoak izan ikasi zituen lehen hitzak.

“Saharaviar gehiago etxean ez hartu beharra gustatuko litzaidake”

Saharaviarrek etxean hartzen jarraitzeko asmoa duzue?

Saharaviar gehiago etxean ez hartu beharra gustatuko litzaidake, horixe litzateke justuena. Han dituzten arazoak konpondu, beraien etxera itzuli eta gehiago kanpora, guregana, etorri beharrik ez izatea, alegia. Hala ere, egiaren ohoretan, faltan botako nituzke, bihotzez. Neu joango nintzateke Saharara, beraien herrialdera. Bi familion artean sortu den konexioa ez da eraz apurtuko

Besterik?

Bai. Jendea saharaviarrek etxean hartzea animatu nahi nuke. Askok diote gustatuko litzaietela, baina gero ez dute egiten. Bi aldeek eskertuko dute.



SAN ANTON JAIAK

San Anton ere merkealditatik pasa zen

Animalien zaindaria da San Anton, baina martitzenean, San Anton egunean, kristaurik ere ez zebilen Elgoibarko kaleetan, ezta animaliarik ere. Oesteko filmeetako herri abandonatua zirudien herriak. Haizeak mugitutako landare matazako bakarrik falta ziren. Plaza Handia zen salbuespen bakarra, umeentzako parkean jolasean zeuden haurrek ematen baitzioten kolore eta bizitasun apurra egun grisari. Ospakizun aipagarriekin osatu nahi genuen orrialde honetarako argazkiak batzea ere kosta egin zaigu! Beharbada, merkealditako argazkiren bat sartu beharko genukeen, edo jai-zubia aprobeztatuz eskiatzera joan ziren elgoibartarrena, bestela. Ziur elgoibarren baino elgoibartar gehiago topatuko genituela.



SANTA AGEDA

Otsailaren 4an aterako dira koroak



Elgoibartarrak hasi dira dagoeneko eztarriak berotzen otsailaren 4an Agedaren omenez koplak kantatzeko. Urtero bezala bi talde ariituko dira koplak kantari: Etxegiña taldekoak kalean eta Elgoibarko Izarrak antolatutako taldea baseriz-baseri.

Baserrietako koroa

Elgoibarko Izarrak antolatutako taldea otsailaren 4an aterako da Plaza Handitik goizeko 10:00etan. Bi taldetan banatuta herriko baserri desberdinak bisitatuko dituzte. Koroetan parte hartu nahi dutenek urtarilaren 26a baino lehen eman

beharko dute izena Elgoibarko Izarran (943 74 16 26). Parte hartzen duten guztientzako bazkaria egongo da San Migeleko sozietatean.

Etxegiña

Etxegiña taldekoak ere otsailaren 4an aterako dira kalera. Goizeko 9:00etan elkartuko dira bolatokian eta bi taldetan banatuta herriko kale guztiak zeharkatuko dituzte. Ondoren, bazkaria egingo dute Baltasar Elkartearen. Entseguak urtarilaren 31n eta otsailaren 2an izango dira Kultur Etxeko sotoan, iluntzeko 20:00etan. Interesatuak bertara agertu daitezke.

“Mambru” antzezlanaren taularatuko du Markeliñek domekan Herriko Antzokian



Gerra izango da Markeliñeko aktoreek erabiliko duten gaia “Mambru” antzerkian. Bi aktore ariituko dira lanean gerra berezian, metrailleta, granada eta trintxerarik gabe, gezurretakoa dirudien arren, benetakoa den gerran. Gauzarik garrantzitsuenaren etxera itzultzea izango da. Sakonean, enfrontamenduan abiatuz adiskide izatera heltzen diren bi neska soldaduren istorioa da. Haurren eta beren laguntzaileen harridura bereganatzen saiatuko dira. Armatza eta odola erabili gabe, jolasa eta irudimena izango dira nagusi igandean. Arratsaldeko 16:30ean hasiko da antzerkia.

Deba Ibarreko hizkeren mapa berria kalean da

Badihardugu Euskara Elkartek “Deba Ibarreko hizkeren mapa” kaleratu du. Orain arte eskualdean egin izan diren ikerketa eta bilketa-lan guztiak kontuan hartuta, Deba Ibarra osatzen duten 17 herrietako berbetak eta hizkerak mapa batean jasotzeko dituzte. Baitarako herri guztietan egin izan da herri-hizkerak jasotzeko ahaleginen bat, eta urteetan egindako azterketen eta jasotako datuen emaitza da hau. Hiru eurotan salduko da. Interesatuak ondorengo webgunean ikus dezakete. <http://www.badihardugu.com/news/1133863120>

Elgoibarko KZgunea

Elgoibarko KZgunea ikastaro berriak antolatu ditu urtarilerako. Interneten hasteko ikastaroak urtarilaren 23an hasiko dira eta 20 orduko iraupena izango du. Bestalde, urtarilaren 26an “Komunikatu posta elektronikoa bidez” mintegia izango da. Honekin batera, 16 urtetik gorakoentzat interneten nabigatzea doan dela gogorarazi nahi dute. Informazioa 943 74 88 28 telefonoan.

Herriko 2 bertsolari saritu dituzte

Mikel Olaizola bertsolari gazteak Mutrikuko Okelar bertso eskolako antolatutako bertso paper lehiaketa irabazi zuen. Idatzizko sei bertso aurkeztu zituen Errazu Bertso Eskolako ikasleak, eta bera izan zen onena. Berritoren ere, bertsolarako daukan abilezia erakutsi du Mikel Olaizolak. Irati Agirreazaldegik, bestalde, Eibarko San Andresetako bertso paper lehiaketa irabazi zuen. Azkenaldian fin dabilza Elgoibarko bertsolariak. Zorionak!

Kubako dantza eta sevillanak

Haizea Emakume Taldeak Kubako dantza eta sevillana ikastaroa antolatu du. Oraindik eguna eta ordutegia zehazteko dago. Interesatuak 943 700791 (Isabel) telefonora deitu dezakete.

63. JUAN MUGERZA NAZIOARTEKO KROSA

Faborito argirik gabeko afrikarren arteko lehia espero da

Kenia, Tanzania eta Etiopiako afrikarren arteko lehia espero da aurten ere Juan Mugerza Nazioarteko Krosaren lasterketa nagusian. Faborito argirik ez dagoenez, lehia bizia eta erakargarria espero dute antolatzaileek. Hona lasterkari aipagarrien merituak: Charles Kamathi Keniarrak ezagutzen du Elgoibarko zirkuitua, 2002an bigarren izan baitzen Chebii herrikidearen atzetik. Munduko kros txapelketetan postu bikainak lortu izan ditu. 2001ean 3. postuan sailkatu zen Ostenden (Belgika) eta 2002an eta 2004an bosgarren postuak lortu zituen Dublino eta Bruselan, hurrenez hurren. Elgoibarren podium-a zapaltzea zer den dakien beste bat, 21 urteko Fabiano Joseph tanzaniarra da. laz hirugarren egin zuen lasterketaren zama guztia bere gain hartu ondoren. Maratoi Erdiko Munduko Txapelketa irabazi berri du Edmontonen, Kanadan. Jamil Bilal Salem, Qatarreko nazionalitatea duen jatorri keniarreko atleta luxezka da, eta izan dezake zeresanik. Deriba Mergia eta Teferi Bacha izango dira Etiopiako ordezkariak. Oraingoz ez dute izen handirik nazioarte mailan, baina Etiopia goi-mailako atleten fabrika amaigabea da. Ezin begirik galdu, hortaz Itatica (Sevilla) eta Edinburgoko krosetan lehen 10 postuetan sailkatu dira. Juan Carlos de la Ossa ttipia ere saiatuko da berea ematen. Bera moduko pisu arinen-



Astelehenetik 8 afrikar Elgoibarren daude.

tzat zirkuito eta aldapa aproposak direla Mintxetakoak aipatu izan du espainiarrak.

Etiopiarrek nagusi emakumezkoetan

Emakumeen lasterketarako esfortzu berezia egin du Mintxeta Atletismo Taldeak eta Italicako kros entzutetsuan podiuma osatu zuten hiru korrikalari etiopiarrek ekartzeko ahalegina egin dute. Bizunesh Bekele izan zen irabazle Sevillan. Meselech Melkamu, beriz, 4. postuan sailkatu zen

iazko Munduko Kros Txapelketan. Aniko Kalovicks hungariarra izango da afrikarrei aurre egin ahal izango dien bakarrenetakoa. laz bigarren postuan sailkatu zen Elgoibarren eta 5. postuan Europako Txapelketan.

Bestalde, Mugerza Krosaren hainbat garaitan jasotako irudiekin EITBk ekoiztutako DVDa jarriko dute salgai antolatzaileek takiletan. 1.000 ale bakarrik atera dituztenez, azkar biltzea komeni da.



SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK

Eneko Loiolak nagusien mailako finala jokatu du gaur

Aspaldiko partez San Anton Pilota Txapelketako finalean ordezkaritako elgoibartar bat izango da gaur, hilak 20, 22:00etatik aurrera Ikastolako frontoan. Eneko Loiola sanmigeldarrak Baez Ila aurrelari donostiarra lagun zuela lotu zuen nagusien mailako finalerako txartela, joan zen barixakuan jokatuako finalaurrekoetako partidaren 22 eta 13 irabazi ostean. Aurkariek, Olaetxea bizkaitarrak eta Jauregi plentxiarrak, partida traketsa jokatu zuten. Baez Ila sake sorta edarra sartu zion Jauregiri hasieran eta markagailuak erakusten zuen aldea ezin errekuperatu ibili ziren galtzaileak. Baez Ila nagusitu zen aurreko koadroetan eta Loiola elgoibartarrak bikain eutsi zion enbeteari. Finalean Belloso eta Oteiza izango dituzte aurkari. Jon Apezetxea, 17 urteko aurrelari goizuetarra, eta Bengoetxea laga zituzten kanpoan



hauek, Apezetxeak afizionatu mailan jokatu zuen azken partidaren. Promesa mailan Lagunak Pilota Eskolako Atxotegi plentxiarrak jokatu du finala, Otxotorena atzelari boteretsua lagun duela. Finalaurreko partidaren Eneko Ulazia, mendaroarra eta taldekidea, laga zuen kanpoan Atxotegik.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Arenas Club 0 - Haundi 1 (3. maila)
 Eibartarrak 0 - Elgoibar 4 (Erreg.)
 Ath. Santurtzi 5 - Elgoibar 0 (Jub.)
 Elgoibar 6 - Umieta 1 (Kad.)
 Elgoibar 2 - Ondarroa 4 (Inf. A.)
 Elgoibar 3 - Zarautz 4 (Inf. B.)
 Elgoibar 1 - Lagun Onak 2 (Neskak F-8)
 Arrasate 1 - Elgoibar 4 (Aleb.)

ESKUBALOA

Tecnifuelle 32 - Egia 20 (Senior mut.)
 Ormaiztegi 26 - ANTT Sofilan 16 - (Senior. mut.)
 Ereintza 19 - Lojantzi 16 - (Senior. nesk.)
 Aloña Mendi 15 - Pneumax 15 (Jub. mut.)
 Zarautz 26 - Tecnomeca 16 (Kad. mut.)
 Arrate 23 - Umobitza 26 (Kad. mut.)
 Zarautz 6 - Aterpe11 (Inf. B.)
 Elgoibar 14 - Zarautz 6 (Inf. A.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Lagunak (Ula./Iri.) 22 - Murumendi 16 (Nag.)
 Lagunak (Liz./Arrizab.) 22 - Bergara 19 (2. jub.)
 Lagunak (Arrib./Sal.) 21 - Gazteleku 22 (2. kad.)

[AGENDA]

FUTBOLA

Mintxetan
Zapata, 21
 10:00 Elgoibar - Eibar (Inf. A.)
 12:00 Elgoibar - Mutriku (Kad.)
 16:30 Elgoibar - Mundarro (Reg.)
 18:30 Elgoibar - Eibar (Jub.)

ESKU PILOTA

Ikastolan

San Anton Txapelketa
Barixakua, 13
Barixakua, 20
 22:00 Atxotegi/otxotorena - Uriarte/Aldape (Promesak)
 22:45 Baez II/Loiola - Belloso/Oteiza (Nagusiak)

Udaberri Txapelketa

Domekia, 22
 12:00 Lagunak - Zumaia (2. kad.)
 12:30 Lagunak - Txapagain (Jub.)

ESKUBALOA

Kiroldegian
Zapata, 21
 13:00 Pagoaga - Eus-F.Zarautz (Kad. nesk.)
 16:00 Umobitza - Gatz Museoa (Kad. mut.)
 17:30 Tecnomeca - Usurbil (Kad. mut.)
 19:00 ANTT Sofilan - Hondarribi (Sen. mut.)
Domekia, 22
 10:00 Pneumax - Bergara (Jub. mut.)
 11:30 Lojantzi - Askartza (Senior nesk.)

Xakelari elgoibartarrek azkoitiarrei irabazi zieten



Joan zen zapatuan eman zitzaion hasiera Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketari. J.L. Larrañaga, M. Fidalgo, David Garcia eta A. Arrietak osatutako Elgoibar Xake Taldeko talde bat lehen mailan ari da aurrean, probintziako xakelaririk onenen artean. Azkoitiko Anaitasuna xake taldean jokatu zuten lehen norgehiagoka eta lau partidetatik hiru irabazi zituzten. Liga eran jokatu den txapelketako hurrengo jardunaldia zapatuan, urtarilaren 21ean, izango da "Pista beltzean" duten xakeko lokalean, 16:00etatik aurrera.

C.D. Elgoibarren zozketako irabazleak

C.D. Elgoibarrek urtero ateratzen duen Gabonetako otarra edo zozketaren zenbaki sarituak honako hauek izan ziren: 11.857 (1. saria) eta 20.388 (2. saria). Alferrik begiratuko duzue zuenak diren ala ez, jadanik agertu baitira zenbaki hauen jabeak (argazkian C.D. Elgoibarko presidentearekin batera)



[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

† Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukaldia eta egongela. Balkoi handi eta eguzkitsua. Igoailua. Altzariekin. 34 milioi.

☎ 943 01 40 18/
645 73 11 25

† Luxuzko pisua salgai Elgoibarko Plaza Handian. 100m².

☎ 619 409 273

† Etxea salgai Iñiguez de Karkizano kalean. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera.

☎ 686 26 27 27

† Madalan estreinatuta gabe dagoen etxea salgai. 3 logela, egongela handia, bi komun, sukaldia-jangela eta garajea.

☎ 696 79 41 81

† Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. 3 logela, bi komun, egongela, sukaldia. Igoailua, berogailu zentrala eta ganbara.

☎ 696 84 50 61

† Pisua salgai Santa Klaran. 2 logela, komuna, egongela, sukaldia eta despentsa. Berogailu zentrala eta leiho berriak. 7 urte. Sartzeko moduan. ☎ 943 74 23 08

ALOKAIRUA

† Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ 686 475 563

† Pertsona batentzako pisu txiki bat alokairuan hartuko nuke.

☎ 677 097 015

[GARAJE eta LOKALAK]

† Ametsa parean dagoen garajea alokatzen da. ☎ 615 78 78 57

† Pista Beltzean garaje marraduna alokatzen da. ☎ 699 81 25 66

† Garaje marraduna salgai Leku Ederreko 4. solairuan.

☎ 660 042 159

† Lokal bat hartuko genuke alokairuan. ☎ 943 53 14 69 (Alex)

† Lokal bat hartuko genuke alokairuan karabana bat gordetzeko.

☎ 943 74 29 52

[AUTOAK]

† Kotxea saltzen dut. Seat Leon FR Sport TDI. 150 zaldiko indarra. Gris plateatua. ☎ 609 888 653

[BESTELAKOAK]

† "Colnago" bizikleta salgai. C50 karbonozkoa. Campagnolo Record. 10 abiadura.

☎ 609 888 653

† Soinu handi bat salgai. Egoera onean. ☎ 943 74 19 30

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Mutila kamarero, igeltsero, sukaldari laguntzaile... lanetarako prest. ☎ 626 198 659

• Mutila kamarero lanetarako prest. ☎ 686 475 563

• Klase partikularrak ematen dira. Lehen eta bigarren hezkuntza. ☎ 943 53 10 54

• Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.

☎ 646 235 195

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ 697 97 50 26

• Mutila lanerako prest: kamarero, garbitzaile, sukaldari laguntzaile... ☎ 660 927 566

• Neska goizez lan egiteko prest. ☎ 696 79 41 07

• Emakumea gabez Mendaroko ospitalean gaixoak zaintzeko prest. ☎ 686 108 552

• Bi neska lanerako prest: tabernan, nagusiak edo umeak zaintzen... ☎ 943 53 12 70

• Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lana egiteko prest. ☎ 943 74 88 99/
685 72 48 61

• Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. ☎ 620 701 323

• Emakumea garbiketa lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest.

☎ 699576107

• Emakumea umeak zaintzeko prest. ☎ 669 22 35 27

(19:00etatik aurrera)

• Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.

☎ 639 978 728

• Txistularia eta dantzaria den neska ospakizunetarako prest.

☎ 615 799 689

• Bi emakume lanerako prest. Nagusiak edo haurrak zainduz edo garbiketa lanak eginez.

☎ 695701753/943201079

• Mutila eraikuntza lanetarako prest. ☎ 662 09 46 24

• Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ 943 74 22 01

(Araceli)

• Emakumea lanerako prest: kamarera, sukaldari laguntzaile, garbitzaile edo antzerako lanetan. ☎ 600 28 27 93

• Emakumea nagusiak edo haurrak zaindu, edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 686108552/
616158430

ESKAINNTZA

• Zapatuetan tabernako atean lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ 670 654 921

• Elgoibarren tailer enkargatua behar da, zenbakizko kontrol zentruan aditua. Kurrikulum-a 169 postakutxatilara.

• Asteburuetarako ileapaintzailea behar da. ☎ 943 74 44 89 /685 72 86 09

• Emakumea gabez Mendaroko ospitalean gaixoak zaintzeko prest. ☎ 686 108 552

• Azkoitiko enpresak **banatzailea** behar du.

Erref. 162006000658

• Mutrikoko enpresak **produktzio-ko ingeniari teknikoa** behar du.

Erref. 162006000480

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.



• Eibarko enpresak **elektrikaria** behar du. Erref. 162006000448

• Eibarko enpresak **komunikazio arduraduna** behar du. Erref. 162005012907

• Donostiako enpresak **euskara irakaslea** behar du. Erref. 162006000683

• Arrasateko enpresak **ingeniari elektronikoa** behar du. Erref. 162006000700

ABISUAK

• Sofa zaharrak hartuko nituzke. ☎ 628 527 325

• Urtarilaren 10ean Madalako errotondan istripua izan nuen, eguerdian. Lekukoen bila nabil.

☎ 680 319 002

[ZORIONAK]



† Zorionak **Ainhoa** gaur 10 urte egin dituzulako. Etxeko guztien eta bereziki, anaia Anderren partez.



† Eskerrik asko **Nahia** gure bizitzetara etorri zinelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



† Zorionak **Juan Mari** urtarilaren 23an urtek egingo dituzulako. Etxeko eta bereziki, Eiderren partez.



† Gure mutil handienak bi urte egin ditu dagoeneko! Zorionak **Iker** ikastolako lagun guztien partez.



† 10 urte beteko dituzu igandean! Zorionak **Ibon** familiako guztien partez.



† Zorionak **Celia**, gurasoen eta bereziki, ahizpa Marina eta Jararen partez. Ez zaitetz aldatu!



† Zorionak **Juan** Hirurogeita... urte bete dituzulako. Yaiza eta Yerayren partez.



† Berandu baina seguru. Zer iruditzen nire ia 70 urteak? Ba bai, 11n. Zorionak Yaiza eta Yerayren partez.



† Zorionak **Mikel** urtarilaren 23an 3 urte egingo dituzulako. Familiako partez.



† Zorionak **Mamen** zure lagun partez. Jarrai ezazu urteak betetzen!



† Zorionak **Aiala** urtarilaren 14an urte bat egin zenuelako. Familiako eta bereziki, Anerren partez.



† Zorionak **Markel** etxeko guztien partez zure 2. urtebetetzean. Askok jolastu eta muxu maitakorrena denon partez.



† Zorionak **Elena** eta **Nerea** urtarilaren 13 eta 29an zuen eguna delako. Aitaren partez muxu handi bat.



† Zorionak **Gorka** eta **Iurgi** zuen urtebetetzean. Familiako eta lagun partez. Aupa bikote!



† Zorionak **Iosu** eta **Leire** hilaren 16an 8 urte egin zenuelako. Mila kilo zorion gure bikote gustukoeneri. Familiako partez.



† † Aitxitxa **Enrike** eta amama **Maite**: 25 urte elkarrekin! Ezin esan urte hauek oparoak izan ez dianik... la ba, horrela beste hainbeste! Zorionak eta ondo pasau bixar!



† Zorionak etxeko bihurrie! **Txaberek** 11 urte bete zituelako abenduaren 30ean eta **Jurgik** gaur 4 urte egin dituelako. Gurasoen partez muxu handi bat.



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



AZALEA

edergintza

Orain mikropigmentazioa
eta laser depilazioa

Trenbide kalea, 3 - Tel. 943 74 03 10

[OKINDEGIA]



[FARMAZIAK]

- 20 **GUARDIA** 24 ORDUZ
- 21 Zabaleta
- 22 Etxeberria (Santa Ana)
- 23 Etxeberria (Santa Ana)
- 24 Fernandez
- 25 Yudego
- 26 Zabaleta
- 27 Etxeberria (Erosario)
- Ibañez

* *Beiti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

KANPOKO FARMAZIAK

IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:40

Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuk eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdira. Azkena 21:55.

Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

[20 BARIXAKUA]

22:00 SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK

Ikastolako frontoian

Antolatzailea: Lagunak Pilota

Eskola eta Udal Kirol Patronatua

[21 ZAPATUA]

10:00 MASAJE IKASTAROAK

Antolatzailea: Surya belardenda

Izena emateko: 943 74 25 34 -

626795024

11:00 SAN BIZENTE EGUNEKO MEZA

San Rokeko ermitan

19:30 NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSEAN PARTE HARTUKO DUTENEI

ONGI-ETORRIA

Udaletxeko Pleno aretoan



JOSE pinturak (Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49



URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE LAN FISKAL

Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91



ASEGURUAK

Malape taberna

Orain astegunetan



© malape Elgoibar, 943 74 19 43

San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

[22 DOMEKIA]

10:00 BARRETERAPIA IKASTAROAK
Aubixa baserian
Goiz eta arratsaldez

10:10 NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSAREN HASIERA

Mintxetan
Antolatzaileak: Mintxeta Atletismo Taldea, Elgoibarko Udala eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatua
Lasterketen ordutegia: emakumezko alebinak (10:10); gizonezko alebinak (10:20); emakumezko infantilak (10:30); gizonezko infantilak (10:45); emakumezko kad-jub. (11:00); gizonezko kad-jub. (11:15); emakumezko juniorrak (11:40); gizonezko juniorrak (12:05); emakumezko seniorrak (12:30); gizonezkoseniorrak (13:00)

16:30 "MANBRU" ANTZERKIA
Taldea: Markeliñe Antzerki Taldea
Herriko Antzokian

[26 EGUENA]

19:00 INGENIARITZA ESKOLAREN DIPLOMA BANAKETA
IMHko areto nagusian
Hizlaria: Jaime Gonzalez de Txabari, Gipuzkoako Aldun Nagusia

[27 BARIXAKUA]

19:00 IKASTOLAKO JAIALDIA
Ikastolako frontoian

ZINE

KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«King-Kong»
20, barixakua: 22:15
21, zapatua: 19:00-22:15
22, domekia: 19:00-22:15
*23, astelehena: 21:30
«Ojala fuera cierto»
27, barixakua: 22:15

**Adi!! ordutegi berria*

EIBAR, UNTZAGA

«La joya de la familia»
20, barixakua: 19:30-22:15
21, zapatua: 17:00-19:30-22:15
22, domekia: 17:00-19:30-22:15
23, astelehena: 19:30-22:15
24, martitzena: 19:30-22:15
25, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Doom»
20, barixakua: 19:30-22:15
21, zapatua: 17:00-19:30-22:15
22, domekia: 17:00-19:30-22:15
23, astelehena: 19:30-22:15
24, martitzena: 19:30-22:15
25, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

SINOPSISIAK

«King-Kong»



Zuzendaria: Judd Apatow.

Antzezleak: Jaimie Bell, Naomi Watts, Jack Black

Urruneko irla galdu batera filma bat grabatzera joan den taldeak gorila erraldoi bat aurkituko du, tituluko King-Kong. Gorila ehizatu eta New York-era eramango dute hiritarren aurrean erakusgai jartzeko. Filmeko protagonista izan behar zuen aktoreaz maiteminduko da animalia. "El señor de los anillos" trilogiaren ostean, Peter Jacksonek zuzendu duen lehen filman aktore ezagun asko daude: Adrien Brody ("La lista de Schindler"), Jaimie Bell (Billy Elliot), Naomi Watts... eta King-Kong-en mugimenduak "Golum" izakiarena egiten zuen berberak egin ditu, Andy Serkis aktoreak.

Atzera hegira



1969 urteko erretratu zahar hau **Elena Alberdik** laga digu. Igandean Nazioarteko Mugerza Krosa ospatuko denez aproposa iruditu zaigu. Argazki hau Udaletxeko pleno aretoan aterata dago urte hartako krosaren aurkezpen egunean. Garai hartan ere, arrakasta handia zeukan Mugerza Krosak, eta gaur egun bezala, munduko korrikalariarik onenak etortzen ziren. Lerungo zelai zaharrean une politak bizi izan dituzte elgoibartarrek. Urte hartan Lackie Stewart ingelesa izan zen irabazlea eta Mariano Haro palentziarra bigarrena. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak:

Ezkerretik eskumara: **Maresma** (etiopiarra), **Ramon Maiztegi (†)** (kirol elkarte desberdinetako kidea), **Mamom Wolde** (etiopiarra. Honek ospe handia eman zion Mugerza Krosari mundu mailan) **Florencio Ansola "Txanbolin"** (txistulari ospetsu ohia, koadroan agertzen dena) eta **Degefu** (etiopiarra).

Lanbroa



Asteleheneretik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



CNC tornuan eta fresatzeko
makinan aritzeko **langileak behar dira**
Mendaroko lantegian.
Interesatuak bidali curriculum
helbide honetara:

Desarrollos Mecánicos de Precisión, S.L.
Kurutz-Gain 12-13
20850 Mendara

e-posta: **dmp@dmp.aero**
Tel.: 943 75 70 40 • Faxe: 943 75 50 11

SANTA AGEDA ESKEAN BASERRIZ BASERRI

Elgoibarko Izarrako koruekin

Otsailaren 4an, zapatuan,
goizeko 10:00etan hasi
eta gaueko 21:00ak arte.



Animatzen zaretenok deitu 943 74 16 26 telefonora (Imanol)
urtarrilaren 26a baino lehen.

Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?

Vamos al Euskaltegi Municipal, ¿te apuntas?



UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea
Nafarroa Enparantza 2 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 27 31
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net
Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-19:30

**EUSKARA IKASTAROAK
MATRIKULADI BERRIA
MAILA GUZTIAK**

**Goizez, arratsaldez eta gauez.
ANIMA ZAITEZ, ZAIN GAITUZU!**



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Biena
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit
Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar
Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso
Leihoak
Sigmako Industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga
Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi
Olaso Poligonoa,
15-68 pabilloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotza
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

Tellabide
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

Zaldúa
Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

Zubizarreta instalazioak
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44



Igeltseritza

Antonio Markez
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Elektrizitatea

Aramar
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Urzelai
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Isolamenduak

Glas Control S.L.
Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com